

Balantze Politikoa 2021-2024. Eskema

Sarrera

- Lau-urteko emankorra politikoki. EH Bilduren alternatiba izaeraren kontsolidazioa.
- “Mailaz igo” du EH Bilduk; erreferentzialtasunean, gaitasun propositiboan, profil instituzionalean, eragiteko gaitasunean eta arlo organizatiboan.
- Hala ere, gure herriak ez du aurrera egiten momentuak eskatzen duen bezala. Ez dugu prozesu politikoa behar beste trakzionatu.
- Ezkerreko subiranismoaren baitan indarrak biltzen eta, halaber, bloke historiko subiranista-eraldatzaile bat sustatzen jarraitzea ezinbestekoa da, hala ere, egiturazko aldaketarik egongo bada. Esan bezala, bide horretan urratsak egin ditugu.

Testuinguratzea

- Pandemiaren amaieraz batera Ukrainako gerraren hasiera. Agertoki ez-egonkor eta abiadura bizikoek ezaugarritutako lau-urtekoa.
- Gerraren ondorioek, jendearen bizi-baldintzak are gehiago okertu dituzte. Jarduera politikoa ere hein batean baldintzatu eta eremu horretara egokitzea eskatu du.
- Ultraeskuinak, eredu autoritarioen alde, ondo baliatu du globalizazio kapitalistaren mugak eta injustiziak agerian utzi dituen ez-egonkortasun, ziurgabetasun eta langile eta herri sektore zabalen lan eta bizi-baldintzen prekarizazio agertoki hau.
- Estatuan, 78ko erregimenaren etorkizunak, estatu-krisiaren eta polarizazio politikoaren gako nagusia izaten jarraitzen du.
- “Aukera leihorearen” eta bloke erreakzionarioaren arteko lehiak ezaugarritu du abagunea.
- Zurrumbilo honetan, indartsuagoa eta esparru guztietan sendoagoa den ezker independentista ageri da. Testuinguru politikoa ondo irakurri eta herritarren ardurekin bat egiten jakin izan duena. Lau-urteko honetan izan dugun ziklo elektoral luzea arrakastaz gainditu izanaren gakoetako bat.

Balantze Politikoa

- Erabakiak. Egiteko modu bat.
 - » Klase politikoa katalogatua dagoen eredu konbentzionaletik urruntzeko saiakera.
 - » Taktizismoetatik, epe motzeko jokaldietatik at, pazientzia estrategikoz arituta eratortzen da etekin politikoa.

- » Gardentasuna. Esaten duguna egiten dugu eta egiten duguna esan
- » Gobernu alternatiba izateak, konfort guneeetatik ateratzea eskatzen du. Profil instituzional-programatikoa igo eta eztabaidak lideratu.
- » Aipatutako gakoek, egiteko modu bat, “marka” bat ezaugarritu dute EH Bildurengan.
- Estrategiaren oinarriak eta lan ildoak.
 - » Gurea bezalako proiektu soberanista batek estrategia sendoa behar du, momentu eta gertakari jakinen kudeaketatik harago doana. Pragmatismo estrategikoaz uztartutako herri-prozesu baterako strategiaren oinarriak ezarri genituen II. Kongresuan adostutako Ponentzia Politikoan. Horietako bakoitzean sakontzeak, nahiz eta guztiak maila berdinean garatzerik izan ez dugun, gorpuzten dute estrategia politikoa. Hamar oinarrietan artikulatu den strategiak, ikasturtez-ikasturte lau lan-ildo nagusitan izan du itzulbidea II. Kongresuaz geroztik marraztu ditugun Plan Politikoetan.
 - » EH 2030. Merezi Duzun Herria
 - EH 2030 MDHtik Euskal Eredura egindako ibilbidea. Abagune historikoaren eta garaiko erronkei lotutako narratiba batekin garatutako ildo-programatikoa.
 - Hainbat sektoreekin zabaldutako harreman-interlokuzioa. Hainbat sektorerekiko hurbilpenerako bidea.
 - Gobernu-alternatiba kondizioan sakontzen lagundu digu.
 - Logika berean, narratiba-irakurketa berean, denboran mantendu dugun narratiba eta egitasmoa.
 - » Gizarte-esparru guztietan barneratzea
 - Interlokuzio-dinamika zabala erdietsi da gizarte-sektore zabalekin.
 - Azpimarratzekoa da, orain arteko nahiko urruneko zitzaizkigun sektore batzuekin egindako hurbilketa.
 - » Udalgintza herrigilea
 - Indar handiagoz lehen indar munizipalista izaten jarraitzen dugu. Udalgintza herrigilearen garapenerako oinarri sendoa.
 - Udalerri batzuetan esperientzia eta dinamika berritzaileak sortu badira ere, oraindik orain, horien hedapena ez dator bat daukagun indar eta hedapen instituzionalarekin.
 - Udalgintza herrigilea behar bezala garatzeko, udalerrietan egiturak sendotu eta inbertsio kualitatiboak egin behar dira.
 - Herrietako egituraketan aurrera urrats handiak egin ditugu; edonola ere, asko da oraindik egiteko dagoena.

- » Molde konfederaleko herri-eraikuntza
 - Erritmo eta fase ezberdinetan aurkitzen diren eztabaidak zabalik hiru lurralde eremuetan.
 - EAE eta Nafarroa arteko agenda programatiko komuna eta lankidetzan sakontzen jarraitu behar da.
 - EH Bairekin elkarlana egonkortzea lortu da, akordio estrategikoaren inplementazio oso-rako asko falta bada ere.
- » Instituzioen eta herri-bulkadaren arteko sinbiosia
 - Erabateko konexioa agenda politikoan indarra hartzen joan diren aldarrikapenen eta gure jarduera politikoaren artean. Agenda sozialean bereziki.
 - Mugimendu eta antolakunde anitzekin harreman estua mantendu dugu eta erreferen-tziazko interlokutore bilakatu zenbait aldarrikapen edo borroketan.
- » Mobilizazioa eta polarizazioa
 - EH Bilduren ohiko jarduera politiko-instituzionalari plano mobilizatzailea gehitu diogu eta egonkortu ere maila batean. Aberri Eguna eta azaroko mobilizazioak horren lekuko.
 - Alabaina, unean-uneko aldarrikapenekin lotutako mobilizazio propiorik ez dugu garatu; argi-indarraren prezio igoera dela eta egindako itzalalдитik at.
- » Kataluniarekiko eta estatutik gabeko nazioekin artikulazioa
 - Kataluniarekiko eta estatutik gabeko nazioekin artikulazioa eta batera jotzeari dagokio-nez herri ezberdinetako ordezkariekin elkarlana indartu dugu azken 4 urteetan, Estatu espainolean eta Europa mailan. Elkarlan horrek fruitu ezberdinak izan ditu, batzuk pu-blikoak, Europar Parlamentuan osatutako kaukusa edo Espainiako Senatuan ERCrekin dugun taldea kasu, eta beste batzuk pribatuak.
 - Kasu batzuetan baldintzak ez dira onenak izan baina EH Bilduk bere esku egon den guztia egin du Europako estatutik gabeko nazioen arteko elkarlana eta harremana bultzatzeko. Lan horri esker oinarri sendoak finkatu ditugu datozen urteetarako, estatutik gabeko na-zioen artean esperientziak trukatzeko eta prozesuen elkar-elikatzeko bideak definituz. Alderdi independentista eta soberanista gehien gehienekin harremanak irekiak ditugu.
- » Diplomazia
 - Diplomaziari dagokionean, harreman diplomatikoak azkartu eta zabaldu ditugu, urte lu-zeetan egindako lana oinarri hartuta. Azken urteak oso konplexuak izan dira nazioarteko agertokiari dagokionean eta etorkizunean diplomaziaren esparruan herri gisa jardutea-ren garrantzia agerian geratu da.

- » Jauzi politikoa
 - Estatuko eta EHko indar subiranistekin akordioak erdiesteko lan egin dugu.
 - Adar anitzeko interlokuzio-harreman dinamika garatu dugu.
 - Antolakunde subiranista-independentisten artean aurretiazko akordiorik lortu ez badugu ere, bakoitzak bere aldetik, auzi nazionala agendan kokatzeko saiakera egin da, auzia tratatzeko termino bertsuak erabiliz.
- » Arnasberritze nazionala
 - Jauzia egin dugu maila propositibo-programatikoan. Euskal Ereduaren aterkipean abaguneari erantzutera etorri den narratiba oso bat garatu ahal izan dugu.
 - “Estatu-itunak” proposatu ditugu, garaiko erronkek eta nazio ikuspegiak hala eskatzen dutelako. Eztabaida batzuk lideratzeko gaitasuna erakutsi da, posizio erosoetatik atera behar izan arren.
 - Sektore batzuekiko (enpresa mundua esaterako) hurbilpenerako modua ere izan da egingadako lan programatikoa.
- » Bakegintza eta elkarbizitza
 - Espetxe sakabanaketa politikaren amaiera.
 - Urriaren 18ko Adierazpena. EH Bilduren posizio eta borondatearen erakusgarri, atal honetan bidea egiteko.
 - Antolakunde anitz oraindik ere baztertzaila den errelatoa inposatu nahian, ETA haizatuz EH Bildu higatzeko.
- » Ezkerreko subiranismoa
 - Fronte Zabal gisa artikulatze bidean urratsak egin ditugu.
 - Masa mobilizazioaren aldeko hautuaren egonkortzea. Aberri Eguna eta azaroko mobilizazioa.
 - Egituraren (liberatu, hautetsi...) transmisio-elikadura politikorako bitartekoak ezarri dira.
 - Ziklo elektoral luzeari era arrakastatsuan erantzun zaio. Lehen indar municipalista, Nafarroako Parlamentuan indar erabakigarria, EAEko Parlamentuan eserlekuetan lehen indarrarekin berdinduta, eurodiputatuak...
 - EH Bildu izan da hitzordu elektoral guztietan igoera erakutsi duen indar bakarra HEHn. Gorakada eta hedapen nabarmena hirigune eta zonalde urbanoetan.

EH Bildu EAE	2020 / 249.580 / 21 / %27,6	2024 / 343.609 / 27 / %32,4
EH Bildu Nafarroa	2019 / 50.631 / 7 / %14,6	2023 / 56.535 / 9 / %17,1
EH Bildu Espainia Gorteak	2019 / 277.621 / 5	2023 / 335.129 / 6
EH Bildu Europa	2019 / 300.796 / *1	2024 / 276.000 / 1

* Diputatu partekatua BNGrekin.

- EAE
 - » EAJrekin hegemonia lehiatzeak determinatu du azken aldi hau. Baita hainbat akordio eta elkarlan eragotzi ere. Indarra hartzen joan den EH Bildu batekin tamaina politiko handiko ezein akordio baztertzea hobetsi du.
 - » Ondo baliatu dugu jendartean ere gero eta gehiago hedatuago dagoen inertzia eta anbizio ezaren pertzepzioa. Eremu zehatz batzuetan dagoen ezinegona (Osakidetza...) gehituz, EH Bildu alternatiba gisa ikusi dute sektore zabalek.
- Nafarroa Garaia
 - » Aurreko legealdien bide beretik eratorria datorren hautu politikoari eutsi diogu, abstentzioaren bidez PSNren gobernua ahalbidetu eta UPNrekiko arrakala estrategian sakonduz.
 - » Bilakaera ikusteke, eskuinaren zatiketa eta krisi zantzuak ageri dira.
 - » Legealdi berrietako indar korrelazioek bestelako egoera batean kokatu gaituzte bai Parlamentuan zein Iruñeako Udalean. Alkatetza jaso izateak sekulako esanahi politikoa dauka. Zentzu berean baloratu beharra dago Nafarroako Udal eta Kontzejuen presidentzia gureganatzea.
 - » Udal hauteskundeetan lehen indar municipalista.
 - » Nafarroako Foru Hobekuntzaren inguruko ponentzia abiatu da.
- Estatua
 - » Madrileko Gobernuan, bloke erreakzionarioa eta “aukera leihoaren” arteko dikotomian, bigarrena egonkortzeko hautua egin genuen. Hiru lan-eremu nagusi; gatazkaren ondorioak, agenda soziala eta auzi nazionala.
 - » Lehen legealdian, lehen bietan aurrera urrats esanguratsuak. Inbestidura blokea deiturikoaren izaera aldaketa bigarren legealdian. Bloke heterogeneoagoa. Legealdiaren ez-egonkortasuna areagotu da, akordioak zailduz.
 - » Madrileko jarduerak foku handia dauka eta ondo baliatu dugu. Horrek euskal eskalako jarduerarek gehiago indartzea eskatzen du, marko espainola gailen ez dadin.